

BILERA MOTA: AUZOTAKO BILERA ALTZIBAR

ZENBATGARREN SAIOA : 8

DATA:	HASIERA ORDUA:	BUKAERA ORDUA:
2016-11-16	19:30	21:40

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak: Jexux, Iosune, Enekoitz, Jon eta Eneritz

Kopurua: 22

16-30 urte: 1	Emakumeak: 11	Euskaraz: 19
30-50 urte: 10	Gizonezkoak: 11	Elebitan: 3
50-65 urte: 9		
>65 urte: 2		

AKTALARIA: Iosune Cousillas

Gai zerrenda:

GAIA/JUSTIFIKAZIOA

ERABAKIA

1	Aurkezpena	Bileraren egitura aurkeztu da. Zinegotzi taldea aurkeztu da.
2	Aurrekontuak 2017	2017ko lehenengo zirriborroa aurkeztu da: diru sarreraren aurreikuspena, gastuen aurreikuspena.
3	2016ko balorazioa	2016ko inbertsioen balorazioa aurkeztu da.
4	2017ko inbertsioak	2017an aurreikusten diren inbertsioak aurkeztu dira.
5	Altzibarko lanak	- Altzibarko lokalaren inguruan Eneritzek aipatu du batzorde bat eratu daitekeela horren gestioa erabakitzeke eta jarraipena egiteko. Galdetu du ia auzotarrak prest egongo liratekeen, eta hauek baietz erantzun dute. Hiru auzotar prest agertu dira batzordean parte hartzeko. Jexuxek aipatu du aste honetan bukatuko dela proiektua, eta handik aurrera gestioarekin hasi daitekeela. Auzotar batek aipatu du 80.000 euro baino gehiago erabili beharko litzatekeela agian 2017ko aurrekontuak kontuan hartuta. Leihoak irekiko dira eta bi ate egingo zaizkio. - Auzotar batek aipatu du errepideak oso egoera txarrean daudela, eta ia gai hori nola dagoen. Erantzun zaio aldundiarekin hitz eginda dagoela. - Aipatu da Klarene aparkalekuan karabana askok aparkatzen dutela, eta zenbaitetan ez dagoela aparkatzeko tokia. Beste auzotar batek esan du beraiek ere IBI ordaintzen dutela eta eskubidea ere badutela aparkatzeko. Batzuk ez omen dira Oartzungoak, eta horiei esan beharko zitzaizkien ez aparkatzeko. Eneritzek aipatu du trafikoko legearen arabera ezin zaiela debekatu, horretarako espresuki kartelik ez bada jartzen. Beste auzotar batek esan du normala dela auzokoek aparkatzea, baina kanpokoak aparkatzea ez dela bidezkoa. Residenteen txartela bat jartzeko aukera bota da, jakin dadin zeintzuk diren

		herrikoak. Beste auzotar batek esan du ia ezin den egin herrian horientzat gunee berezi bat. Jexuxek esan du gaur egun ez dagoela aurreikusia horrelako proiektua aurrera eramatea. Beste batek esan du ia ezin zaien plus bat kobratu hor aparkatzen duten karabanei. Beste batek esan du bere lehenengo kotxea furgoneta handi bat dela, eta berak ezingo lukeela eraman bere etxetik urrutira egunero behar duelako. Jexuxek esan du otsailean egin zela azterketa bat aparkalekuaren inguruan, eta, berriz ere jarraipena egin beharko dela gaur egungo Klarene aparkalekuaren egoera ezagutzeko. Horretan geratu da auzotarrek: auzoko argazki bat egin behar da aparkalekuaren jarraipena egiteko. Karabanaren inguruan ere aztertuko da. - Auzotar batek aipatu du Ergoien (Arditurirako bidean) bidegorrian ez dagoela argirik. Erantzun zaio ez direla jarriko lapurtzen dituztelako. - Beste batek esan du egiten ari diren espaloien materiala ez dela oso egokia. Haurrak erortzen badira azala altxatuko dute. Jexuxek aipatu du denborarekin leunduko dela, eta halakoa jarri dela hostoekin etabarrekin irristakorra ez izateko. - Auzotar batek esan du herrian orokorrean ez dagoela trafikoaren azterketarik eginda. Trafiko proiektu bat egin beharko litzatekeela zenbait unetan sortzen diren ataskoak eta egoera desatseginak saihesteko. Joera norabide bakarreko kaleak da inguruko herrietan eta hemen ere hori planteatu beharko litzateke. - Beste batek aipatu du etxebizitzaren inguruan beste herri batzuek badutela etxebizitzaren inguruko beste politika mota bat. Txandakatzeko formula nolabait. Hain zuzen ere, denboraldi batez bertan bizitzeko aukera ematea eta ondoren jendearen aldaketa derrigorrez ematea, beste batzuei aukera emanaz. Jexuxek aipatu du egokia ikusten duela, baina gaur egungo baliabideekin aukera gutxi ikusten da. - Auzotar batek aipatu du ea kuarteleko etxeetako egoera nolakoa den une honetan. Jexuxek aipatu du egoera ezberdinak daudela, eta jarraipena egiten ari dela. Ongizatekoek gaiaren jarraipena egiten dute. Erregularizatzeko prozesu batean gaudela aipatu du. - Beste auzotar batek aipatu du ea Kadarsoren gaia nola dagoen. Jexuxek erantzun du abendurako ateratzeko agindua dutela. Lanbarreneko obra nolabait atzeratzen ari da eta ondorioz hemengoa ere atzeratzen ari da. Abenduan kanpoko tolbak kenduko dira. Martxorako aktibitate osoa gelditu behar dute eta maiatzerako alde egin behar dute guztiz. Alde egiten dutenean garbiketa eta regenerazio lan bat egingo du udalak. - Auzotar batek aipatu du lur-kutsatuaren gaia nolakoa den. Jexuxek aipatu du hori udalak bideratuko duela. - Horrekin batera beste batek esan du Karrikarako bidegorria noizko izango litzatekeen. Urrutira begira edo azkar. Jexuxek esan du baietz egingo dela, gauzatuko dela hemendik gutxira. Une honetan proiektua gauzatzen ari dela. Horretarako aurreikusten diren aurrekontuen inguruan hitz egin du Jexuxek. - Beste batek aipatu du Kadarsoaren inguruan terreno partikularrak dituztenak orain dutela erreklamatzeko garaia. Egin diren azterketetan argi ikusten da kutsadura handia
--	--	---

		dagoela. 2010, 2013an egin diren azterketetan argi ikusten da kadaso noraino dagoen kutsatua, ez dago bakarrik ikatza, metal asko tartean daude. Auzotar honek kutsaduraren inguruko xehetasun asko eman ditu, kutsadura mota. Oso haserre agertu da orain arteko politikoen tratua, ez da entzuna eta ulertua sentitu. Jexuxek aipatu du kadarsoren inguruan dagoen informazio guztia udalan dagoela denen eskuragarri dagoela. -Auzotar batek aipatu du katuaren gaia oraindik ez dela konpondu. Arautegi bat jarri beharko litzatekeela pentsatzen du. Bizilagunen arteko istiluak daude katuen gaia dela eta, penagarritzat jotzen dira horrelako egoerak. -Beste auzotar batek aipatu du Amenabarrekoek Olaldeko bukatu zutenean obra dena oso gaizki utzi zutela. Beraiek esan zuten udalak egitekotan geratu zela, baina oraindik zikina dago. - Errekako landareak oso handiak daude eta mantendu beharko litzateke, bestela berriz ere urarekin arazoak izango dira. -Zubiko barandila oso egoera txarrean dago. Mantenuko lanetan sartu beharko litzateke. -Eskoletan itotiak daude.
6	Balorazioa	Balorazio orriak bete dira.

Hilariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,63
Hizlariak: ondo gidatu dute bilera	8,95
Bileran erabili den metodologia	8,72
Herritarren asistentzia	5,95
Herritarren partehartzea	7,79
Saioa probetxugarria izan al da?	8,47
Egunaren egokitasuna	8,42
Orduaren egokitasuna	7,47
Lekuaren egokitasuna	8,63
Denera batz bestea	8,11